



# Abbadiako natura-gunea:

**Hasiera:** Hendaiako hondartzako parkinga.

**Iraupena:** Ordu eta erdi.

## Sarbidea: Iruñeatik etorrira

Donostiatik N-1 edo A-8 autopista hartuko dugu Hendaiako hondartza arte.

Bazen behin izarrez maiteminduta zegoen xiberotarren iloba bat. Anton Abbadia zuen izena, eta besteak beste Niloren jaiotza aurkitu nahi izan zuen. Behin Etiopiatik itzulita, legendazko gaztelua eraikiarazi zuen Hendaiako Santa Ana lurmuturrean. Gaur egun Abadiako parke naturalak inguratzen du gaztelua, zientzialari haren gogo berdinekin hurbildu nahi duen esploratzaile berrientzat.

Ibilbidea Hendaiako hondartza handiko parkingean hasten da, itsaso-ospitaletik hurbil. Ataka bat gurutzatuta parkeko informazio zentrorra hurbilduko gara: "Maison de la Lande". Baserriaren albotik igarota aurrerantz egingo dugu bide zabalago batera heldu arte, eta bide-gurutzean ezkerretarantz joko dugu.

Bideak arbola artean jarraitzen du, Nekatoenea landetxea ezkerretara lagaz eta eskuinetara urrunean, Abadiako gaztelua ikusiko dugu. Seinaleak jarraituz bigarren gurutze-bide batekin egingo dugu topo eta eskumatik jarraitu nahi duenak Loiako badia jaitsi ahal izango du. Ezkerretarantz eginez Santa Anako puntara helduko gara, ibilbideko leku interesgarriena: bertan aurkitzen dira bai haize-arrosa bai guda garaiko bunkerrak. Parepare, arroka bikiak daude, kondairaren arabera, erraldoi batek bertara jaurtitakoak. Ibilbideak ezkerretik jarraitzen du, obelisko batetik eta bunker baten aurrietatik igaroz. Labarren bazterretik joango gara kala baten gainean eta sagardizko zelaiak gurutzatuz interpretazio zentrorra itzuliko gara, jadanik ezagutzen dugun bidetik parkingera itzultzeko. Behin natura-gunea bisitaturik, gaztelua bisitatzeko garaia da, jakina. F